

Hitzaurre gisa

Olatz Altuna

Soziolinguistika Klusterra

o.altuna@soziolinguistika.org



Eskuartean duzu, irakurle, Hizkuntzen Kale-Erabilaren VI. Neurketaren kariatara atondu den BAT aldizkariaren ale monografikoa. Euskal Herri osoa barne hartzen duen neurketak hizkuntza-erabilera zertan den argitzen du lauzpabost urteko tartearekin. Azkenekoa, 2011koa, dugu argazkirik gaurkotuena.

Eremu informaleko ahozko jardunari erreparatzen dionez, neurgaia bera ezin adierazgarriagoa da hizkuntzaren osasuna zertan den jakiteko. Gaur egun inor gutxi jarriko du zalantzan Kale-Erabilaren Neurketa ezinbesteko erreferentzia dela, ez bakarrik une jakin bateko erabilaren termometroa agertzen duelako, baita bilakaera eta joera ere erakusten duelako. Horien berri jakin gabe, nekez egin daiteke egiazko hizkuntzaplantzari.

Ale monografiko honen agurreko hitzak Jackeline Urla irakasleak ekarri dizkigu. Kanpoko, baina,aldi berean, Euskal Herriko errealitatea oso ondo ezagutzen duen ikerlari baten begiratua da Urlarena. Gertukoa da artikulua —bizipen pertsonalek zipriztindua—, eta mamitsua. Esperientzia eta ezagutzan oinarrituta, kale-erabilera neurtzearen

garrantzia nabarmendu, eta ikerlan hau balioetsi behar dela aldarrikatzen du.

Ondoren, kale-erabilera neurtzeko jarraitu den metodologia deskribatzen da. Neurketaz neurketa, oinarri metodologikoek sendotasuna hartu dute, eta horrek aurreko edizioetako lana berresteko balio izan du. Seigarren edizio honetara iritsita, dagoeneko esan daiteke aski asentatua eta sendoa dela erabiltzen den metodologia. Azken edizio honetan, laginketa eredu bat diseinatu da ikerketa honetara berariaz zuzendua.

Jasotako emaitzen irakurketa aurkezten du neurketaren Batzorde Zientifikoak. Arreta non jarri behar den, zein diren emaitzarik adierazgarrienak, eta hausnarketarako hainbat jakingai aurkezten dira Batzorde Zientifikoaren ekarpen horretan.

Emaitzen gaineko hausnarketari dagokionez, bada edizio honetan berezitasun bat. Aurretan landu dira lehenbiziko aldiz foro batean Kale-Erabilaren Neurketa eta Inkesta Soziolinguistikoa. Bi azterlan hauen irakurketa paraleloa egiteko aukera eduki genuen EHUko udako ikastaroetan. Bertan aurkeztutako hiru lan ekarri ditugu ale honetara: Aizpurua eta Ortiz de Landaluzerena, Iurrebasorena, eta Martinez de Lunarena.

Inkesta Soziolinguistikokoaren emaitza nagusiak izan dituzte aztergai Aizpuruak eta

Ortiz de Landaluzek. Euskal Herri osoan egindako 7.800 inkesten bidez, lau ikerketa-eremu jaso dira: herritarren hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan eta euskararekiko jarrera.

Iurrebasoren ondorioa da Inkesta Soziolinguistikoa eta Kale-Neurketa bat datozela, bai bilakaera orokorra bai adin-taldekako zein lurraldekako erabileren banaketa deskribatzean. Garrantzi handikoa da ondorio hori; izan ere, harrigarria baita hain abiapuntu eta ezaugarri desberdineko neurketek halako antzekotasuna erakustea emaitzetan. Argazki-makina arrunt desberdinek irudi bera erretratatu dute. Esan daiteke koherentzia horrek bi ikerlanak baliozkotzen dituela eta panorama argitu egiten diela hizkuntza-normalizazioan diharduten eragileei eta erakundeei. Iurrebasok bateratze-lan paregabea

egin du, izatez, bi ikerketon emaitzak ez dira-eta bere horretan konparagarriak. Erabilera orokorraren datua, euskararen egoera deskribatzeko adierazle-sistemaren ernamuina datekeena, indize bakarrera ekarri du. Horra hor premiazko diagnostikoa osatzeko funtsezko adierazlea.

Norabideetan jartzen du arreta Inaki Martínez de Lunak, euskararen geroa kezkatuturri duela. Galdegai zail bezain interesgarria dakarkigu: non gauden, eta, batez ere, norantz jo behar dugun. Martínez de Lunaren planteamenduak badu berritzailetik, eta hausnarrerako bideak markatzen dizkigu.

Patxi Juaristi soziologia klasikoaren munduan murgiltzen da bete-betean. Max Weber-en lanean oinarrituta, tipo idealak sortzen ditu Juaristik. Bi tipo ezaugarritzen ditu funtsean, agerian utziz nolako bereizgarriak dituen euskaraz naturalki diharduenak, eta nolakoak euskaraz inola ere ari ez denak.

Haur eta gazteen hizkuntza-erabilerak jarri die hizpidea Urtxintxako Miren Loinazi eta Izaro Susperregiri. Eskarmentuaren talaiatik eta neurketa-datuak aztertuta, gazte-txoen hizkuntza-hautua ulertzeko gakoak jorratzen dituzte. Antzemandako joerek eta beharrek aspektu psikologikoak zein sozialak ukitzen dituzte.

Normalizazio-ziklo baten amaiera iragar-tzen du Iker Martínez de Lagosek. Bat dator Neurketaren Batzorde Zientifikoaren diag-nostikoarekin: gaur egungo baldintzekin goia jo da euskararen erabilpenean. Topagunean azken urteotan egindako hausnarketa abia-

puntu hartuta, ziklo berriari heltzean kontuan hartu beharreko oinarriak azaltzen dizkigu.

Euskararen ezagutza unibertsal egitea funtsezkoa da Mertxe Mujikarentzat. Gaur egungo hainbat gabezia nabarmendu ostean, hartu beharreko neurriak lantzen ditu AEK-ko koordinatzaile nagusiak.

Gurean izeneko atalean, Nagore Iriberrik eta José Ramón Uriartek gizarte elebidune-tako hiztun elebidunen portaera aztertzen dute. Hain zuzen ere, hizkuntza hautatzeko erabiltzen dituzten estrategiak lantzen di-tuzte eredu matematiko baten bidez.

Horratx, artikuluen menu zabal eta opa-roa. Gustu baduzu, badago zer dasta eta zer hausnartu datozen orrialdeetan. On dagi-zula. •